

Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

5545

AGINDUA, 2010eko azaroaren 11koa, Kulturako sailburuarena, zinema-aretoek Europar Erkidegoko eta Iberoamerikako filmen kopiak eskuratzeko laguntzak arautzen dituena.

Ikus-entzunezko alorrean garatzen diren jarduera artistiko eta kulturalak sustatzeko, sendotzeko eta zabaltzeko eskumenak Kultura Sailari dagozkio, horixe xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen 4/2009 Dekretuan (uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuaren bidez aldatua) eta Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuan.

Zinari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legeak 29. artikuluan dio ezen, ikus-entzuleek kultura-ekoizpenaren dibertsitatea eskura izateko helburuz, zinema-areto independenteetarako laguntza-neurriak ezarri ahal izango direla, autonomia-erkidegoekin elkarlanean eta erregelamendu bidez ezarritakoari jarraituz, zinema-areto horiek ematen duten programazioaren arabera. Elkarlan hori erantzukidetasunaren printzipioan oinarrituko da eta bidezko hitzarmenen bidez gauzatuko da.

Kultura Sailak hitzarmen bat sinatu du Kultura Ministerioarekin, Zinari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 29. artikuluan aurreikusitako laguntzei aplikagarriak zaizkien baldintza eta konpromisoak ezartzeari begira zinema-aretoetarako laguntza emateko.

Alde horretatik, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari jardun-arlotzat aitortzen zaizkion eskumenen barruan, interesgarritzat jo da zinema-aretoek Europar Erkidegoko eta Iberoamerikako filmen kopiak eskuratzeko laguntzak ezartzea, lehentasuna emanaz jatorrizko bertsioan ematen direnei.

Ondorioz, hauxe

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

5545

ORDEN de 11 de noviembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se regulan las ayudas para el acceso de las salas de exhibición cinematográfica a copias de películas comunitarias e iberoamericanas.

De conformidad con las disposiciones contenidas en el Decreto 4/2009, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, modificado mediante Decreto 20/2009, de 30 de julio, así como en el Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura, corresponden al mismo, entre otras, las atribuciones relativas al impulso, consolidación y/o difusión de las actividades artísticas y culturales que se desarrollen en el área audiovisual.

La Ley 55/2007, de 28 de diciembre, del Cine, en su artículo 29 establece que con el objeto de favorecer el acceso de los espectadores a la diversidad de la producción cultural, se podrán establecer, en colaboración con las Comunidades Autónomas y del modo que reglamentariamente se determine, medidas de apoyo para salas de exhibición independientes en función de la programación que efectúen. Esta colaboración que se basará en el principio de corresponsabilidad, se instrumentará mediante los oportunos convenios.

El Departamento de Cultura ha suscrito un convenio con el Ministerio de Cultura para la concesión de ayudas a salas de exhibición cinematográfica para establecer las condiciones y compromisos aplicables a las ayudas previstas en el artículo 29 de la Ley 55/2007, de 28 de diciembre, del Cine.

En tal sentido, dentro del ámbito de facultades que a la Dirección de Promoción de la Cultura le vienen señaladas como áreas de actuación, se ha considerado de interés establecer unas ayudas para favorecer el acceso de las salas de exhibición cinematográfica a copias de películas comunitarias e iberoamericanas, con preferencia hacia aquellas que las ofrezcan en versión original.

En su virtud,

EBATZI DUT:

I. KAPITULUA
ARAU OROKORRAK**1. artikulua.**– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da 2009ko azaroaren 1etik 2010eko urriaren 31ra bitartean Europar Erki-degoko eta Iberoamerikako filmen kopiak eskuratzeko laguntzak emateko baldintzak ezartzea eta horien deialdia egitea.

2.– Filmek bi urte baino gutxiago izango dituzte, jatorrizko herrialdean estreinatu zirenetik kontatuta.

3.– Agindu honen ondorioetarako, europar filmtzat hartuko dira Media programan parte hartzen duten estatuetan finkaturiko konpainietan nagusiki ekoizitakoak.

4.– Agindu honen ondorioetarako, iberoamerikar filmtzat hartuko dira Iberoamerikako estatuetan finkaturiko konpainietan nagusiki ekoizitakoak.

5.– Deialdi honetatik kanpo geratuko dira publizitate-filmak, pornografikoak, eta arrazismoaren edo indarkeriaren apologia egiten dutenak.

2. artikulua.– Laguntza-modalitateak.

Laguntza-modalitateak honakoak dira:

1.– Gehienez ere hiru pantaila dituzten aretoetarako laguntzak.

2.– Hiru pantaila baino gehiago dituzten aretoetarako laguntzak. Kasu honetan, laguntzak jaso ahal izateko, aretoen programazioaren % 50ak gutxienez Europar Erkidegoko eta Iberoamerikako filmez osaturik egon behar du, 1.1 artikuluan ezarritako denboraldian.

3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Laguntzak jaso ahal izateko, zinema-erakusketarako enpresek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: Euskadiko Autonomia Erkidegoan finkatuta egotea, toki berean eta enpresa-izen berean kokatutako pantaila bat edo gehiago (laguntza-modalitatearen arabera) edukitzea, publikoari irekia gutxienez sei hilabete aurretik eramatea, leihatila eta diru-sarreraren deklaraziorako sistema bat izatea, eta izena emanda egotea Kultura Ministerioaren Zine eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuko Zinematografia eta Ikus-entzunezko Enpresen Administrazio Erregistroan (ICAA), edo aukeran Eusko Jaurlaritzan sor litekeen erregistroan.

2.– Ezingo dute deialdi honetako diru-laguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik dutenek, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek ere.

RESUELVO:

CAPÍTULO I
NORMAS GENERALES**Artículo 1.**– Objeto.

1.– Es objeto de la presente Orden la convocatoria y establecimiento de las condiciones para la concesión de ayudas para el acceso a copias de películas comunitarias e iberoamericanas durante el periodo comprendido entre el 1 de noviembre de 2009 y el 31 de octubre de 2010.

2.– Las películas deberán tener una antigüedad inferior a dos años desde su estreno en el país de origen.

3.– A los efectos de la presente Orden se consideran películas europeas las producidas mayoritariamente por una o varias compañías establecidas en los Estados que participan en el Programa Media.

4.– A los efectos de la presente Orden se consideran películas iberoamericanas las producidas mayoritariamente por una o varias compañías establecidas en los estados iberoamericanos.

5.– Quedan excluidas de la presente Convocatoria de ayudas las películas de carácter publicitario, pornográfico o que hagan apología del racismo o la violencia.

Artículo 2.– Modalidades de ayudas.

Las modalidades de ayudas son las siguientes:

1.– Ayuda para salas que cuenten como máximo con tres pantallas.

2.– Ayuda para salas que cuenten con más de tres pantallas. En este caso para poder acceder a las ayudas las salas deberán tener una programación de películas comunitarias e iberoamericanas que supere el 50% de la programación en el periodo establecido en el artículo 1.1.

Artículo 3.– Beneficiarios.

1.– Podrán acceder a las ayudas las empresas de exhibición cinematográfica ubicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, con una o varias pantallas en función de la modalidad de ayuda instaladas en un mismo lugar y agrupadas bajo el mismo nombre de empresa, abierto al público desde al menos seis meses, con un sistema de taquilla y declaración de ingresos y estén inscritas en el Registro Administrativo de Empresas Cinematográficas y Audiovisuales del Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales (ICAA) del Ministerio de Cultura, o en su caso, en el que se pueda crear como Registro del Gobierno Vasco.

2.– No podrán acceder a las ayudas previstas en esta convocatoria quienes se encuentren sancionados administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de ayudas o subvenciones pú-

Halaber, ezingo dute diru-laguntzarik eskatu sexubereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalik duten erakundeek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren indarrez.

3.– Nolanahi ere, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 50.4 artikuluekin bat etorritik, onuradunei diru-laguntzak eta laguntzak eman eta, hala badagokio, ordaintzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta hauen erakunde autonomiadunek ematen dituzten izaera bereko laguntza edo diru-laguntzen arloan hasi eta oraindik ere izapidean den itzultze- edo zehapen-prozedura orok amaituta beharko du.

4. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Laguntza hauen ondorioetarako, diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko dira Europar Erkidegoko eta Iberoamerikako filmen kopiak alokatzeagatikogastuak.

5. artikulua.– Laguntzen zuzkidura.

1.– Deialdian ezarritako laguntzen gehienezko zuzkidura guztira berrehun eta laurogeita hamazazpi mila berrogeita lau (297.044) eurokoa da, nahiz eta gehitzerik ere izango den, lehenengo xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan.

2.– Gehienez ere hiru pantaila dituzten aretoetarako modalitatean, berrehun eta hogeita hiru mila bostehun eta hamalau (223.514) euro erabiliko dira.

3.– Hiru pantaila baino gehiago dituzten aretoetarako modalitatean, hirurogeita hamairu mila bostehun eta hogeita hamar (73.530) euro erabiliko dira.

6. artikulua.– Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honen bidez emango diren diru-laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

7. artikulua.– Eskariak, epeak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskariak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izango da, agindu hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.– Eskabide horiek Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari zuzenduta egongo dira eta deialdiaren eranskinetan eskatzen diren agiriarekin batera aurkeztuko dira, zuzenean Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzan (Do-

blicas, o se hallen incursos en alguna prohibición legal que inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

3.– En todo caso, de acuerdo con el artículo 50.4 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, la concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a los beneficiarios de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

Artículo 4.– Gastos subvencionables.

Se considerarán gastos subvencionables para los efectos de estas ayudas los gastos originados por el alquiler de las copias de películas comunitarias e iberoamericanas.

Artículo 5.– Dotación de las ayudas.

1.– La cantidad máxima total para las subvenciones previstas en la presente convocatoria se fija en doscientos noventa y siete mil cuarenta y cuatro (297.044) euros, si bien podrá verse incrementada en los términos establecidos en la Disposición adicional primera.

2.– Se destinarán doscientos veintitrés mil quinientos catorce (223.514) euros para la modalidad de salas con un máximo de tres pantallas.

3.– Se destinarán setenta y tres mil quinientos treinta (73.530) euros para la modalidad de salas con más de tres pantallas.

Artículo 6.– Órgano de gestión de las subvenciones.

Corresponderá a la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura la realización de las tareas de gestión de las subvenciones previstas en la presente convocatoria.

Artículo 7.– Solicitudes, plazos y documentación exigida.

1.– El plazo de presentación de las solicitudes será de quince días naturales, a partir del día siguiente a la fecha de publicación de la presente Orden en el BOPV.

2.– Las solicitudes deberán dirigirse al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, y se presentarán, junto con la documentación exigida en los anexos de la convocatoria, en la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura del Gobier-

nostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz; Kale Nagusia 85-behea, 48011 Bilbao; Andia kalea 13-behea, 2004 Donostia-San Sebastián) nahiz Herri Administrazio-en Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako bitartekoetako bat erabiliz.

3.- Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusten bada zerbait falta dela edo errakuntzak daudela, eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzendu dezan edo falta diren dokumentuak aurkez ditzan, eta horretarako hamar eguneko epea emango zaio, dagokion jakinarazpena jasotzen den egunaren biharramunetik kontatuta. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

4.- Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartu direla adierazten du.

8. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

Deialdi honen babesean zinema-areto bakoitzari eman dakioken gehienezko laguntza 30.000 euro izango da. Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, zinema-areto bakoitzak balorazio-irizpideak aplikatu eta gero lorturiko puntuazioa hartuko da kontuan.

9. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

1.- Diru-laguntzak banatzeko, zinema-areto bakoitzak honako balorazio-irizpide hauek aplikatu eta gero lorturiko puntuazioa hartuko da kontuan.

a) Europar Erkidegoko film baten emanaldi bakoitzagatik, jatorrizko euskarazko bertsioan: 10 puntu.

b) Europar Erkidegoko film baten emanaldi bakoitzagatik, euskara ez beste hizkuntza bateko jatorrizko bertsioan: 7,5 puntu.

c) Europar Erkidegoko film baten emanaldi bakoitzagatik, jatorrizkoa ez den bertsioan: 5 puntu.

d) Iberoamerikako film baten emanaldi bakoitzagatik: 5 puntu.

2.- Areto bakoitzak azkenean lortutako puntuazioa honela kalkulatu da: aurreko atalaren arabera eskuratutako balorazio orokorra 2009ko azaroaren 1etik 2010eko urriaren 31ra bitarteko emanaldikopuruarekin zatituta.

3.- Puntuazio handiena lortu duen aretoari 8. artikuluan aurreikusitako gehienezko kopurua emango zaio; zuzkiduraren gainerako diru-kopurua proportzionalki banatuko da gainerako zinema-aretoen artean,

no Vasco, calle Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, calle Gran Vía, 85, bajo, 48011 Bilbao, o calle Andia, 13, bajo 20004 Donostia-San Sebastián, o bien directamente o por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.- En el supuesto de que, analizada la documentación presentada, se observase que ésta es incompleta o defectuosa, se concederá, en su caso, un plazo de diez días, a contar desde el día siguiente a la notificación de la comunicación que se ponga en conocimiento del solicitante los defectos observados, para su subsanación, con la indicación de que, transcurrido dicho plazo sin que se haya procedido a la referida subsanación, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que le será notificada, o se declarará decaído en su derecho al trámite correspondiente.

4.- La presentación de solicitudes supone la aceptación expresa y formal de las condiciones que definen las bases de la presente convocatoria.

Artículo 8.– Cuantía de la ayuda.

El importe máximo de la ayuda que pueda otorgarse al amparo de esta convocatoria por cada sala de exhibición será de 30.000 euros. Para determinar el importe de la subvención se considerará la puntuación obtenida por cada sala de exhibición una vez aplicados los criterios de valoración.

Artículo 9.– Criterios de Valoración.

1.- Para la distribución de las cuantías se considerará la puntuación total obtenida por cada sala de exhibición una vez aplicados los siguientes criterios de valoración.

a) Por cada pase de una película comunitaria en versión original en euskera: 10 puntos.

b) Por cada pase de una película comunitaria en versión original en un idioma que no sea euskera: 7,5 puntos.

c) Por cada pase de una película comunitaria que no sea en versión original: 5 puntos.

d) Por cada pase de una película iberoamericana: 5 puntos.

2.- La puntuación obtenida finalmente por cada sala es el resultado de dividir la valoración global obtenida conforme al apartado anterior, entre el número total de sesiones durante el periodo comprendido entre el 1 de noviembre de 2009 y el 31 de octubre de 2010.

3.- La distribución de los importes se efectuará asignando la cantidad máxima que se contempla en el artículo 8 a la sala con mayor puntuación y el resto de la dotación se repartirá proporcionalmente en-

eskuratu duten puntuazioen arabera, harik eta dirubaliabide guztiak amaitzen diren arte.

10. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Deialdi honetako laguntzak esleitzeko ebazpena Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak emango du, eta interesdunei jakinarazi, sei hilabeteko epean deialdia argitaratzen denetik aurrera kontatuta.

2.– Ebazpena esleipendunei jakinarazteaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

3.– Ebazteko epea igarota interesatuari ebazpena jakinarazten ez bazaio, dagokion eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Horrek ez du Administrazioa salbuesten, ordea, ebazpen adierazia emateko duen obligaziotik.

11. artikulua.– Bateragarritasuna.

1.– Deialdi honen kargura ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakundek xede berberarekin eman ditzakeenekin, betiere dirulaguntza jasotzen duen jardueraren guztizko finantzaketa gainditzen ez bada.

2.– Finantzaketa gainditzen bada, deialdi honen kargura emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da dagokion mugaraino.

12. artikulua.– Laguntzaren ordainketa.

Dirulaguntzak ordainketa bakar batean emango dira, egindako jarduera 13. artikuluan jasotzen denaren arabera gauzatu dela behar bezala justifikatu ondoren.

13. artikulua.– Justifikazioa eta likidazioa.

1.– Agindu honetako dirulaguntzen onuradunek jarraian aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte diruz lagundutako jarduera amaitu eta bi hilabeteko epean eta, edozein modutan, 2010eko abenduaren 31 baino lehen.

a) Diruz lagundutako proiektuan garatutako jardueri buruzko azalpen-txostena.

b) Egindako jarduerak sortu dituzten gastuak justifikatzen dituzten faktura jatorrizkoak edo beraien kopia konpultsatuak.

c) Diruz lagundutako kopiei buruz ICAARA bidalitako emanaldi-txostenaren kopia.

d) Onuradunak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

tre el resto de las salas de exhibición conforme a la puntuación obtenida hasta que se agoten los recursos asignados.

Artículo 10.– Resolución y notificación.

1.– La resolución de concesión de las ayudas previstas en esta convocatoria será dictada, por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes y notificada a los interesados en el plazo máximo de seis meses a contar desde la publicación de la convocatoria.

2.– Independientemente de la notificación, el contenido de esta resolución se hará público en el Boletín Oficial del País Vasco a los efectos de su general conocimiento.

3.– En el caso de que expire el plazo indicado sin que se haya notificado resolución alguna, los interesados podrán entender desestimada su pretensiones, a los efectos de lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación de la Administración de resolver expresamente.

Artículo 11.– Compatibilidad.

1.– Las subvenciones que se otorguen con cargo a la presente convocatoria serán compatibles con cualesquiera otras que pudieran ser concedidas por otras entidades al mismo objeto, siempre que no exista sobrefinanciación de la actividad subvencionada.

2.– En caso de producirse ésta, se reducirá el importe de la subvención otorgada con cargo a esta convocatoria hasta el límite que corresponda al efecto de que no se genere tal sobrefinanciación.

Artículo 12.– Pago de la ayuda.

El abono de las ayudas otorgadas se realizará mediante un único pago y tras la ejecución y debida justificación de la actividad realizada en los términos que se exponen en el artículo 13.

Artículo 13.– Justificación y liquidación.

1.– Los beneficiarios/as de las subvenciones establecidas en la presente Orden, deberán presentar, dentro de los dos meses siguientes al de finalización de la actividad subvencionada, y en todo caso con anterioridad al 31 de diciembre de 2010:

a) Memoria explicativa de las actividades desarrolladas en el proyecto subvencionado.

b) Facturas originales o fotocopias compulsadas de las mismas, justificativas de los gastos ocasionados por la actividad realizada.

c) Copia del informe de exhibición remitido al ICAA referente a las copias subvencionadas.

d) Documentación acreditativa de que el beneficiario se halla al corriente de sus obligaciones tributarias.

e) Helburu berarekin eskuratutako beste laguntzen zerrenda.

2.– Diru-laguntza justifikatzeko bidalitako agiriak aztertu ondoren, dena delako zioarengatik gainfinantzaketarik egonez gero, hasieran onartutako laguntza gutxitu edo erabat deuseztatzen bada, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak banakako likidazioaren ebazpena emango du, justifikagiriak aurkezteko epea bukatu eta bi hilabeteko epean.

14. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzak jasotzen dituztenek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntza eman dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost egun baliouduneko epean pertsona onuradunek berariaz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat emango da.

b) Diru-laguntzari eman zaion xede horretarako erabiltzea.

c) Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari diru-laguntzen fiskalizazio-lanetan behar duten informazio guztia ematea.

d) Diruz lagundutako proiektua deialdirako aurkeztu diren baldintzetan garatzea. Hori guztia gorabehera, aldaketak ere egin ahal izango dira, baldin eta hauek funtsezkoak ez badira. Aldaketa horiek idatziz jakinaraziko zaizkio Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari eta hark, jakinarazpena jasotzen duen egunetik hamabost egun baliouduneko epea izango du horiek onartu edo gaitzesteko. Epea inolako jakinarazpenik gabe igaroz gero, aurkeztu den aldaketa onartu dela ulertuko da.

e) Laguntza ematen duen organoari Estatuko nahiz mundu mailako beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek xede bererako ematen dituzten bestelako laguntza edo diru-laguntzak jasotzen diren jakinaraztea.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako diren laguntza eta diru-laguntzak jaso ahal izateko ezartzen diren batebehar eta baldintzak.

15. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako laguntzak, osorik zein zatika, agindu honetan adierazi bezala onartutako jardueretarako erabili beharrean, beste zerbaitetarako erabiltzea.

b) Eskatutako gastu-faktura guztiak ez aurkeztea.

e) Relación de cualesquiera otras ayudas con destino al mismo objeto.

2.– Cuando analizada la documentación remitida a los efectos de justificación de la subvención proceda, por el motivo que fuera, caso de existencia de sobrefinanciación, la minoración o la anulación total de la ayuda inicialmente reconocida por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes se dictará, en el plazo de dos meses desde la finalización del plazo de presentación de justificantes, Resolución de Liquidación individualizada.

Artículo 14.– Obligaciones del sujeto beneficiario.

Los sujetos beneficiarios de las ayudas reguladas en la presente Orden deberán cumplir las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la ayuda concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días hábiles tras la fecha de recepción de la notificación de concesión de la ayuda las personas beneficiarias no renuncian expresamente a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la ayuda para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico del Departamento de Economía y Hacienda y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

d) Ejecutar el Proyecto subvencionado en los términos presentados a la Convocatoria. Ello no obstante, podrán introducirse aquellos cambios que no supongan una modificación substancial. Los mismos, deberán notificarse por escrito al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, el cual tendrá un plazo de quince días hábiles a partir de la fecha de recepción de la notificación para su aceptación o no. Transcurrido dicho plazo sin notificación expresa, la modificación planteada se entenderá aceptada.

e) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras ayudas o subvenciones para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o Entes públicos o privados, nacionales o internacionales.

f) Cuantas otras obligaciones y deberes estén establecidas por la percepción de ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 15.– Incumplimientos.

1.– Constituirán supuestos de incumplimiento:

a) La aplicación total o parcial de las ayudas percibidas para actividades distintas de las previstas en la presente Orden.

b) La no aportación del total de las facturas de gasto exigidas.

c) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, laguntza ematerakoan ezartzen direnak ez betetzea.

d) Hala badagokio, diru-laguntzaren likidazio-ebazpenean zehaztutako diru-kopurua ez itzultzea, horretarako emandako epearen barruan.

e) Aurkeztutako proiektuan Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak baimendu gabeko aldaketaren bat egitea.

f) Xedapen orokorretan nahitaez bete beharreko-tzat jotako beste edozer ez betetzea.

2.- Ez betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuaren arabera (hurrenez hurren, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaruei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua).

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– 5. artikuluan jaso den guztirako zenbatekoa aldatu egin ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen guztirako zenbatekoa kontutan harturik, Kultura Sailean beste laguntza-egitasmo batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira. Adierazitako aldaketa diru-laguntzak ebatzi baino lehen egin behar da. Diru-kopuru hori bi modalitateon artean banatuko da, agindu honetan ezartzen den proportzioari eutsita. Aipatutakoaren berri eman beharko da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

Bigarrena.– Agindu honetan araututako diru-laguntzen programa Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Erregelamenduan ezarritako minimis arauaren mende dago (erregelamendu hori Tratutako 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da, eta Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean 2006-12-28an argitaratu zen: L379/5). Ondorioz, Kultura Sailak beharrezkoak diren mekanismoak jarriko ditu abian bermatzeko enpresa jakin bati emandako laguntza osoa ez dela izango 200.000 eurotik gorakoa edozein alditako hiru ekitaldi fiskaletan.

c) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Orden o, en su caso, de las que se establezcan en el acto de concesión.

d) La no devolución de la cuantía que, en su caso, se señale en la Resolución de Liquidación de la ayuda, en el plazo para ello establecido.

e) La realización en el proyecto presentado de cualquier modificación no autorizada por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

f) Cualquier otra que sea de obligado cumplimiento por así establecerlo con carácter general cualquier otra disposición.

2.- La constatación de la existencia de alguno de estos supuestos determinará, en los términos y previo cumplimiento de lo previsto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las entidades colaboradoras que participan en su gestión, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– El importe global consignado en el artículo 5 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas del Departamento de Cultura, y con carácter previo a la resolución de las mismas. Dicha cuantía se repartirá entre las dos modalidades manteniendo la proporción que tienen asignada en la presente Orden. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

Segunda.– El programa de subvenciones contemplado en esta Orden queda sujeto a la regla de minimis establecida en el Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión, de 15 de diciembre de 2006, publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea L 379/5 de 28 de diciembre de 2006, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado a las subvenciones de minimis, y por tanto, el Departamento de Cultura articulará los mecanismos necesarios para garantizar que la ayuda total de minimis concedida a un sujeto beneficiario de las subvenciones previstas por la presente Orden, no sea superior a 200.000 euros durante cualquier periodo de tres años fiscales.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kulturako sailburuari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazio-arekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetan sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 11.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden podrán los interesados/as interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación, o bien recurso contencioso-administrativo ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir, asimismo, del día siguiente de su publicación.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de noviembre de 2010.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERANSKINA / ANEXO I

EUROPAR ERKIDEGOKO ETA IBEROAMERIKAKO FILMEN KOPIAK ESKURATZEKO LAGUNTZA
ESKABIDEA

SOLICITUD DE AYUDA PARA EL ACCESO A COPIAS DE PELÍCULAS CINEMATOGRAFICAS COMUNITARIAS
E IBEROAMERICANAS

PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA FÍSICA O JURÍDICA

Pertsona fisiko edo juridikoaren izena / Nombre de la persona física o jurídica:
 Helbidea/Dirección:
 PK/CP: Herria/Localidad:
 Teléfonoa/Telefono: Faxa/Fax:
 E-maila/E-mail: Web orria / Página web:

Modalitatea / Modalidad:

- Gehienez hiru pantaila dituzten aretoak / Salas de exhibición con un máximo de tres pantallas.
 Hiru pantaila baino gehiago dituzten aretoak / Salas de exhibición con más de tres pantallas.

JARDUERARI BURUZKO DATUAK / DATOS DE LA ACTIVIDAD

Emanaldi aretoa / Sala de exhibición:

Helbidea/Dirección:	
Emanaldi kopurua / Número total de pases:	
Europar Erkidegoko filmen emanaldi kopurua / Número de pases de películas comunitarias:	
Europar Erkidegoko filmen emanaldi kopurua euskaraz / Número de pases de películas comunitarias en euskera:	
Europar Erkidegoko filmen emanaldi kopurua jatorrizko bertsioan / Número de pases de películas comunitarias en versión original:	
Iberoamerikako filmen emanaldi kopurua / Número de pases de películas iberoamericanas:	

BANKETXE EDO AURREZKI ENTITATEAREN DATUAK / DATOS BANCARIOS O DE LA ENTIDAD DE AHORRO

Banketxea edo Aurrezki Entitatea / Banco o Entidad Bancaria:
 Agentzia/Agencia:
 K.D./C.D.:
 Kontu zk. / N.º cuenta:
 Jabea/Titular:

ESKATZEN DUEN PERTSONA/ERAKUNDEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

1.- Pertsona edo erakunde horren agiriak:

A) Pertsona fisikoak badira:

NANaren fotokopia.

B) Pertsona juridikoak badira:

Pertsona juridikoaren eraketa-eskritura eta estatutuak, baita erakundea dagozkion Erregistro Publikoetan izen-ematearen ziurtagiria ere.

Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia, eta ordezkaria dela frogatzen duen boterearen frogia.

C) Bai pertsona fisikoek bai juridikoek aurkeztu beharreko agiriak.

Aurreko bi urteetan eta indarrean dagoen urtean jasotako minimis motako edozein laguntzari buruzko deklarazioa.

Pertsona eskatzaileak sinatutako zinpeko adierazpena, egiaztatzen duena erakundeak ez duela laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere, sexu-bereizkeria dela-eta gertatu direnak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren indarrez.

Dagozkien zergak ordaindu dituztela frogatzen duen ziurtagiria (1).

Jarduera ekonomikoaren zergari dagokion epigrafean altan egotearen ziurtagiria.

Zinema-aretoa Euskadiko Autonomia Erkidegoan finkatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

Enpresa eskatzailearen txostena, 2009ko azaroaren 1etik 2010eko urriaren 31ra bitartean erakutsitako Europar Erkidegoko eta Iberoamerikako filmei buruz, honakoak jasoko dituena: titulua, nazionalitatea, ekoizpen-urtea, jatorrizko herrialdean estreinatutako urtea, banatzailea, emanaldi-epaia eta kostua (BEZa gabe).

Proiektu berarentzat beste laguntza batzuk eskatu edota jaso badira zinpeko aitortpena aurkeztu, baita laguntzen zenbatekoa zehaztu ere.

Ordainketak igortzeko, II. edo III. eranskinak betetzea.

DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR LA PERSONA/ENTIDAD SOLICITANTE:

1.- Documentación relativa a la persona/entidad:

A) Cuando se trate de personas físicas:

Fotocopia del DNI.

B) Cuando se trate de personas jurídicas:

Escritura de constitución y estatutos de la entidad así como acreditación de su inscripción en los Registros Públicos correspondientes.

Fotocopia del DNI del representante legal, así como acreditación del poder de representación que ejerza.

C) Tanto para personas físicas como jurídicas.

Declaración sobre cualquier otra ayuda de «minimis» recibida durante los dos años anteriores y durante el año en curso.

Declaración jurada suscrita por la persona solicitante de que la entidad no se encuentra sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o no se halla incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Certificación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias (1).

Acreditación de estar dado de alta en el epígrafe correspondiente del Impuesto de Actividades Económicas.

Acreditación de estar ubicada la sala de exhibición en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Memoria de la empresa solicitante, con expresión de las películas comunitarias e iberoamericanas que se exhiban entre el 1 de noviembre de 2009 y el 31 de octubre de 2010, indicando título, nacionalidad, año de producción de la película, año de estreno en el país de origen, distribuidora, periodo de exhibición y coste de cada película, excluyendo el IVA.

Declaración jurada si se han solicitado o se han obtenido ayudas para el mismo proyecto y cuantía de las mismas.

Para el libramiento de pago: anexo II o III.

OHARRA:

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak ondokoa adierazi nahi dizu: eranskin honetan jarri dituzun datu pertsonalak, Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikopean dagoen fitxategi automatizatu batean sartuko ditugu, ondoren, erabili ahal izateko.

Fitxategiko datuak ez zaizkio beste inori lagako. Fitxategia Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak erebiliko du, bakarrik, berak sustatutako diru-laguntzak kudeatzeko.

Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuetan sartu, datuak zuzendu, datuak ezereztu edo datuen aurka egin nahi duzula adierazteko, honako helbide honetara idatzi beharko duzu: Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

NOTA:

La Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este anexo van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal.

El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceros, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de las ayudas promovidas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura, responsable de dicho fichero, c/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

.....(e)n, 2010ekoaren(e)(a)n
En, a de de 2010

Sinadura/Firma: (2)

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIEI BURUZKO OHARRAK:

(1) Zergak ordaindu direla frogatzen duen ziurtagiria.

Organo eskudunak emandakoa. Horrek ematetik eskabidea aurkeztu arte, gehienez sei hilabete igaro ahal izango dira.

(2) Sinadura:

Eskabide-orria sinatzen duena erakundearen legezko ordezkaria bera izango da.

NOTAS ACLARATORIAS SOBRE LA DOCUMENTACIÓN A APORTAR:

(1) La certificación acreditativa de hallarse al corriente de las obligaciones tributarias.

Deberá haber sido emitida por el órgano competente con no más de seis meses de antelación a la fecha de solicitud.

(2) Firma:

El firmante de la solicitud habrá de coincidir con quien ostente la representación legal de la entidad.

II. ERANSKINA - ANEXO II

HIRUGARRENAREN DATUEN ALTA/ALTA DE DATOS TERCERO INTERESADO (*)
HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK/DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO

IFZ edo NAN / NIF o DNI (1)
Entitatearen izendapena edo izen-deiturak / Denominación de la entidad o nombre y apellidos:
.....
.....

HELBIDERATZE-DATUAK/DATOS DE DOMICILIACIÓN

Helbidea Domicilio.....	Udala
Posta-Kodea Código postal:	Localidad:
Lurraldea Provincia	

BANKUAREN DATUAK/DATOS BANCARIOS (3)

Banketxea edo Aurrezki Entitatea Banco o Entidad Bancaria	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
Agentzia Agencia	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
K.D. D.C.	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
Kontu zk. N.º cuenta	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
Jabea Titular	

Bankuaren adostasuna Conforme banco	Hirugarrenaren adostasuna Conforme tercero	Sailaren onespina V.º B.º Departamento (2)	Kontabilitatearen onespina (2) V.º B.º Contabilidad
Sinadura eta Zigilua Sello y firma	Sinadura eta Zigilua Sello y firma	Baimenduriko sinadura Firma autorizada	Baimenduriko sinadura Firma autorizada

(*) Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntzarik inoiz jaso ez dutenek bete beharreko inprimakia / Impreso a rellenar por aquellos petitionarios que no hayan recibido nunca subvención alguna del Gobierno Vasco.

Argibideak/Observaciones:

- (1) Erantsi fitxa honi Identifikazio Fiskalerako Txartelaren fotokopia edo Nortasun Agiri Nazionalarena./Debe adjuntarse fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal o, en su caso, del Documento Nacional de Identidad.
- (2) Administrazioak bete beharrekoa/A rellenar por la Administración.
- (3) Bankuak edo Aurrezki Entitateak bete beharrekoa/A cumplimentar por el Banco o Entidad de Ahorro.

III. ERANSKINA - ANEXO III

HIRUGARRENAREN DATUETAN ALDAKETA(K) SARTZEKO ESKABIDE-ORRIA (*)
 SOLICITUD MODIFICACIÓN EN LOS DATOS DEL TERCERO (*)

IFZ edo NAN / NIF edo DNI..... 3.aren kodigoa/Código del tercero (1):
 Entitatearen izendapena edo izen-deiturak / Denominación de la entidad o nombre y apellidos

ALDAKETA / MODIFICACIÓN (2)

A.– HELBIDERATZE-DATUAK / DATOS DE DOMICILIACIÓN

Helbidea
 Domicilio.....
 Posta-Kodea Udala
 Código postal: Localidad:
 Lurralde
 Provincia

BANKUAREN DATUAK/DATOS BANCARIOS (3)

Banketxea edo Aurrezki Entitatea
 Banco o Entidad Bancaria
 Agentzia
 Agencia
 K.D.
 D.C.
 Kontu zk.
 N.º cuenta
 Jabea
 Titular

Data/Fecha

Sinadura/Firma

(*) Eusko Jaurlaritzatik inoiz diru-laguntzaren bat jaso badute ere, helbideratze edota banketxeko datuetan aldaketaren bat sartu nahi dutenek bete beharreko inprimakia / Impreso a cumplimentar por aquellos peticionarios que, habiendo recibido alguna subvención del Gobierno Vasco, deseen introducir alguna modificación en los datos de domiciliación y/o en los bancarios.

Argibideak/Observaciones:

(1) Administrazioak bete beharrekoa / A rellenar por la Administración.

(2) Aldaturiko kontzeptua(k) baino ez da/dira adierazi behar / Tan sólo debe(n) cumplimentarse el/los concepto(s) a modificar

(3) Kasu honetan, honako dokumentazio osagarri hau erantsi beharko zaio eskabide-orriari / En este caso deberá adjuntarse a la solicitud la siguiente documentación:

a) Proposatzen den aldaketarako arrazoia / Razón que motiva el cambio.

b) Ordainketarako jakinarazitako kontu korrontea egon badagoela eta beraren titularra adierazitakoa bera dela ziurtatzen dituen banku edo aurrezki-entitate batek emandako agiria / Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la existencia de cuenta y la titularidad de la misma.

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILEKO KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOKO KONTABILITATE
 ZERBITZUA

SERVICIO DE CONTABILIDAD DE LA OFICINA DE CONTROL ECONÓMICO DEL DEPARTAMENTO DE
 HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA.

